


Astekaria

BARREN

elgoi



Kale zuloatik baserrira

ELKARTEA

ELKARTEA

ZEZENBIDE



auto-eskola

San Frantzisko 43,
☎ 74 27 20

Elgoibarko HERRI ESKOLA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta O.H.O.



ZERBITZUAK

• JANGELA APARTA:


Bertan prestaturiko jakiak. Subentzionatua. Menu egokia eta merkeak.

• DOAKO GARRAIOA INGURU GUZTIETATIK.

• PEDAGOGI AHOLKULARITZA (Eibarko P.A.T.)

ESKEINTZA:

- Murgiltze plana: D Hizkuntza Eredua
- Gela bereziak: 2 urteko haurren gela, informatika, laborategia, ikusentzunezkoa, hizkuntza laborategia, liburutegia, gimnasioa, plastika, heziketa berezia.
- Ingelesa 3. mailatik gora.
- Gelaz kanpoko ekitaldiak: Aterpeak, Baratze ingurugiro Hezkuntza zentroa, Pagoetako parkea, bestelako irteerak.
- Eraikuntza moderno eta leku egokian kokatua: Jolastoki ederrak eta ongi gordeak.



AURRE MATRIKULA EPEA
Martxoaren 1etik 15era

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak...461111
Txanda hartzeko ...743354
Alkoholiko Anonimoak.....740385
D.Y.A (anbulantzia)464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala.....756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileen elkarteak.....743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar)112131
Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.742158
Mendaroko Udala756100.
Ongizate zerbitzua.....743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
IMI741196
Kontsumo Bulegoa743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Polikiroldegia741361
Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

AURKIBIDEA

- 4 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**
Paktu berri baten alde (Itziar Fernandez)
- 7 BERBETAN**
Maria Jose Ruiz:
"Emakumeok ez dugu geure gorputza ezagutzen"
- 8 ERREPORTAIA**
Maltzaga-Urbina adostasunaren bila
- 12 ASTE HONETAN**
Salatuko al zenuke eraso sexualik jasanez gero?
- 15 KALE ZULOTIK BAsERriA**
Baserri munduari buruzko gehigarria
- 20 UDALETXETIK UDALERRIRA**
Berrikuntzak egingo dira tren geltokian
- 21 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**
Ildefonso Maria Lizarriturri. Musikoa
- 22 KIROLA**
Elkarrizketa: Antonio G. Moreiras
Eskubaloiko jubenil taldea Gipuzkoako txapeldun
- 26 EUSKALTEGIETATIK BUELTAN**
AEK: Euskara maitatu hitz eginez
- 27 KULTURA**
Elkarte izateko beharrezkoa da errejistratzea
- 28 GAZTAROA ARO EROA**
Gazte eroak lanean oparoak

farmaziak

5, larunbata: Ormazabal
6, igandea: Ormazabal
7, astelehena: Etxeberria
8, asteartea: Etxeberria
9, asteazkena: Etxeberria
10, osteguna: Etxeberria
11, ostirala: Etxeberria

okindegia

6, igandea:
ZABALETA



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



Paktu berri baten alde



Martxoak 8a laster iritsiko da gure egutegietara eta horrelako ospakizunen aldekoa ez banaiz ere -emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna eguneroko lana dela uste dut- ezin ukatu aukera aprobeztatu beharrean gaudela betiko aldarrikapenak era bereizi batean azpimarratu eta ideia berriak planteiatzeko. Eta hemen natorkizue oraingo paktu berri baten alde.

Emakumeak betidanik besteen beharrak garantizatzeko izan gara hezituak eta dependentzia honek eragin kaltegarriak izan ditu ez baitugu aukerarik eduki erabakiak hain libre hartzeko eta gure bizitza pertsonala aurrera eramateko.

Batzuren batzuk maila profesionalean aritzeko aukera izan dute eta besteek berriz etxean egiten dute lan. Baina diferentzia horiek alde batera utziz nahitanahiezkoa dute bata eta besteek helburu pertsonalak argi eduki eta nahien arabera bideratzea.

Eta hauxe aipatzerakoan autonomia hitza datorrit burura. Azken urteotako aurrerapausuak kontuan edukita ez dut uste emakumeok irabazitakoari uko egiteko prest gaudenik. Ez gara ez atzera begira bizi, aurrera baizik eta, etorkizunera diot, paktu berri bat finkatu

behar dugula gure gaurko gizartean; pertsonaren bizitza proiektua errespetatu eta aldarrikatuko duen paktua -flexibilitate osoarekin, noski-; gizon eta emakumeen artean aukera eta ardurak banatzearen aldeko paktua; bikote, seme-alaba, aitonamon... belaundien arteko elkartasunari eutsiko dion paktua; elkar bizitza aurrerakoia bat posible egingo duen gizarte paktua.

Baina paktu guztiak negoziazioaren fruituak direla ezin ahaztu eta horra hor akordiora iristearen koska. Bizitza autonomo baten aldekoak bagara, ezinbestekoa dugu gure inguruan bizi direnekin negoziatzen hastea, bakoitzak bere interesak eta helburu pertsonalak dituela ahaztu gabe.

Baina hori ez da nahikoa, gizarte mailan ere behar dugu paktua. Gizarteak berak baldintzak finkatuta utzi behar ditu bakoitzak bere helburu pertsonalak lor ditzan, alde batetik pentsamolde aldaketen alde eta rol ezberdintasunaren kontra lan eginez eta bestetik, guztion esku egongo diren komunitate zerbitzuak eraikiz.

Bi abiapuntu horietatik bideratuko da gizartearen aldaketa, gizon eta emakumeek familia eta proiektu profesionalak batera garatzea posible egingo duena eta azken batean bizitza proiektu libreagoak ziurtatuko dituen.

Itziar Fernandez

elgoiBARREN

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Eneiz Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua, Ohiana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzila, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





Aste honetako erretratua **Manoli Mugerzak** lagatakoa da. Erretratua 1948. urtean, gutxi gora behera, ateratakoa omen da, Pepe Arrillagaren klinika zaharraren parean. Erretratua **Pepe Arrillagak** berak atera omen zuen.

Bijilia garaian gaudenez, aproposa iruditu zaigu arrainaren aldeko propaganda egitea. Erretratuan **Benita Izagirre**, "La chata" edo "La morena" arrain

saltzailearen postua ikus dezakegu. Begibistan da orduan ez zegoela gaur egungo adelanturik: gaurko arraindenda modernoak, arraina biltzeko materiale bereziak, izotz makinak, etb. Egurrezko karro baten gainean arraina pilatu, kale bazterrean jarri eta periodiku zaharren orri solteak, guraize zahar batzuk eta halamoduzko pisua izaten ziren arrainsaltzailearen lanabes edo lanerako erreminta bakarrak.

Esaerak ondo dion bezala, urteak ez dira alferrik pasatzen.

KEMEN  Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

GARAY



San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Fotero

OKINDEGIÅ
OPILDEGIÅ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35



GALDERAK

• Noizko amaitu behar dute Herriko Antzokia?

Udaletxeko Hirigintza Saileko teknikariarekin egon gara eta apirilaren erdialdean amaituta egoteko esperantza daukatela erantzun digu.



KEXAK

Irakurle batek deitu digu Maalako komuneri buruz bere kexatxo azaltzeko. Zabaldu bai, baina ez omen daude batere egoera onean. Bonba botatzerakoan ura kanpora irteten omen da.



TXALOAK

“Liburutegiko langileak txalotu nahi ditut egiten duten lanagatik. Aurreko astean kexatzen idatzi zutenei, berriz, liburutegia irakurtzeko eta ikasteko dela esango nieke, eta ez jolasean eta txilixoka ibiltzeko.”

ESKUTITZAK

Euskara ikastea denon eskubidea

AEKn ikasten dihardugun Aia 20.000 ikasletako batzuk gara eta hiru urte daramatzagu Elgoibarko AEKn eta aurrerapausu handiak eman ditugu euskararen ezagupenean zein erabileran. Guk geuk argi daukagu AEKk euskararen alde egiten duen lana, kontutan hartzekoa dela baina dirudienez beste batzuentzat lan honek ez du merezi laguntzarik eta buru belarri ari dira AEK ekonomikoki ito nahian.

Guzti honen aurrean ez gara isilik geratuko, bakoitzak euskara ikasteko nahi duen euskalategia aukeratzeko eskubide osoa daukala pentsatzen dugulako. Hau guztia dela eta, AEKk zenbait ekintza antolatu ditu; horietako bat sinadura bilketarena da, hain zuzen ere, pisu handia izaten ari dena, orain arte ia 100.000 bildu direlarik.

Bukatzeko dei egin nahi diegu euskaltzale guztiei, martxoaren 5ean Bilbon egingo den manifestapenarekin bat egin dezaten, horrela euskara ikastea denon eskubidea dela erakutsiz.

AEK euskaltegiko talde bat

Euskara eta administrazioa

EUSTATEk, Euskal Autonomi Elkartearen egindako inkesta batek zioen, 1991ko zentsuan 526,7 euskaldun kontu genitzakeela eta 1986an %24,4. Beraz, euskaldun kopuruak gora egin du baina ez asko.

Guk pentsatzen dugu, euskararen egoera ez dela onena, eta horregatik ez dugu ulertzen Eusko Jaurlaritzaren jarrera. Horregatik subentzioak eskatzen ditugu euskaltegi libreentzat eta euskaltegiak ez istea.

AEK euskaltegiko talde bat

Guk ere Mintxetan jolastu nahi dugu

Kaixo:

Gu neska talde bat gara, 11 urtekoak, eta Mintxetan jokatu nahi genuk. Ez dugu uulertzen zergatik gure edadeko mutilek jolastu dezaketen Mintxetan eta guk, berriz, ez. Guk ere jolasteko aukera daukagu eta ez dugu nahi atzean gelditzerik. Gure proposamena ekipo bat egitea da. Lor daiteke!!

**Agur t' erdi
Ikastolako 11 urteko neskek**



ANCHUSTEGUI s_a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 ● ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

Maria Jose Ruiz:

“Emakumeok ez dugu gure gorputza ezagutzen”

Maria Jose Ruiz bilbotarra da. Hamairu urte zituenean argi zeukan bere ikasketak medikuntzaren arlotik bideratuko zituela. Kirofanoa gustatzen zitzaion, zirujano izatea batez ere. Baina orduan, jendea ez zen gehiegi fidatzen emakume zirujano batez. Gaur egun ginekologoa da eta operazioak

egiten dituela esatean, oraindik ere, jende asko harritzen da. Eibarren, Arrasaten eta Bilbon kontsulta bana ditu eta Donostiako Quiron klinikan ere aritzen da. Han egiten dituzte histeroscopiak, sabela ireki gabe operatzeko sortu den teknika berria. Euskal Herrian eurek bakarrik egiten dute.

- Ba al du abantailarik ginekologo eta emakume izateak?

- Gazteek eta 50 urtetik gorakoek, sekula ginekologoarengana joan ez direnek, emakumea nahiago izaten dute. Ni hemen lanean hasi nintzela jakitean askok eta askok deitu zuten.

- Zertara etortzen da jendea gehienbat?

- Denetara, baina batez ere gazteak direnez, planifikazioaz arduratzen dira: pastillak, DIUak... Anorexia kasu asko ere ikusten ditugu hemen, pisua galdu eta, ondorioz, hilerokoa jeisten ez zaien neska ugari.

- Zein da adin aproposena ginekologoarengana joaten hasteko?

- Harreman sexualak edukitzen hastean, komenigarria da, gutxienez, urtean behin etortzea. Gainontzean, 22-23 urte ingurutik aurrera edo.

- Nola eragiten du menopausiak emakumeengan?

- Fisikoki itoaldiak, izerdiak eta urduritasunak,... Halere, eragin



“Harreman sexualak izatean komenigarria da ginekologoarengana joatea”

sikologikoak dira nabarmentzen. Menopausiarekin askok ezertarako balio ez dutela pentsatzen dute. Garai txarra da. Orain arteko emakumeek etxeko lanak egiten zituzten, haurrak hazi. Baina urteak pasa ahala, seme-alabak etxetik doaz, ispilura begiratzean zimurak ikusten dituzte aurpegian... Nolabait bete behar dute beren bizitza eta gimnasiari heltzen diote, igeri egiten hasten dira, sekula egin

ez dituzten ikastaroak... Etxetik kanpo bilatzen dute barruan galdu dutena.

- Zer da zure lanbidetik gehien gustatzen zaizuna?

- Erditzeak, haur bat jaiotzen laguntzea gauzarik aberasgarriena da. Dena dela, utzi beharra izan nuen.

- Zergatik?

Erditzeak ez dauka ordurik, eguerdiko hama-bietan zein gaueko ordu-bietan izan daiteke. Nire

lanaz gain familia ere daukat, eta denera ezin iritsi, aukeratu beharra dago. Gauza gutxiago egin behar, baina hobeto. Gizonen kasuan ezberdina da, haiek denbora libre gehiago dute eta. Lana amaitu eta etxera joatean dena egin izaten dute. Guk, ordea, harategira joan, bazkaria presatatu, haurren kontuak... Gauza txikiak dira, baina asko eta egun osoan zehar. Pilatzen doaz, eta azkenean aukeratu beharra dago.

- Ezagutzen al dugu emakumeok gure gorputza?

- Ez, oso gutxi. Anti-sorgailuei buruz lehen baino gehiago dakigu, prebentzioari buruz ere bai... Baina gorputza apenas ezagutzen dugun. Lotsa handia dago oraindik, baita jende gazteenan ere. Askotan, zerbait dutela eta ea ispiluan begiratu diren galdetzean beraien erantzuna, “ez, ez, ez!” izan ohi da. Nire ustez, eskolan ernaltze-organuei buruzko anatomia eman beharko litza-teke.

Maltzaga-Urbina proiektua: Adostasunaren bila

Aste honetan zehar maketa, mapa, diapositiba tresna eta azken finean, Maltzaga-Urbina ardatzaz eztabaidatzea helburu zuen jendez beteta ikusi ahal izan dugu Kultur Etxea. Hainbeste jende atzera eta aurrera ikustean badira zerbait erregalatzen zuten susmoarekin bertaraino urreratu direnak ere. Baina ez, ez da hala izan. NIP-IGP izenekoak (nucleos de intervencion ciudadana/interbentzio gune partehartzaileak) izan ditugu Kultur Etxean bilduta, eta Maltzaga-Urbinari buruz jardun dute.

Joan den astelehenean hasi ziren IGPen (interbentzio gune partehartzaileak) bilerak Elgoibarren. Donostian, Gasteizen eta Arrasaten bildu ondoren Elgoibarren izango dute azken txanpa maiatzean kaleratuko den txostena egin aurretik. Bi asteren buruan Deba Beheko 100 pertsonak proposamen eta irtenbide ezberdin ugari aztertuko dituzte, eta azkenean bakoi-

tzak bere ondorio eta iritzia osatu beharko du. Aste honetan 50 pertsona bildu dira, 25 kideko bi taldetan, eta, datorren astean gainontzekoak bilduko dira.

Hiritarren aukeraketa

Hauteskundeen zerrendatik itsuan aukeratzen dira IGPan parte hartuko dutenak. Notarioaren aurrean egiten da zozketa eta herri bakoitzeko koefiziente bat kalkulatu da biztanleria

Hans Harms, IGPen arduraduna:

"IGPek gatazka sozial bat ebitatu nahi dute"

- Hans, zer da NIP edo IGP bat?


-IGParekin hiritarrak erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea nahi dugu. Bestelako partehartze metoduen alboan ezberdintasun handiak ditu. Gure abiapuntua zera da: jendeak ez daukala arazo orokorretaz behar adina informazio. Beraz, arazo horietan jendearen inplikazioa nahi badugu, lehenengoz informazioa eman beharko zaio. Eta

horretarako denbora behar da, asko. Hiritarrak itsuan aukeratzen ditugu zentsutik, eta horiek ordezkatzeko dute biztanleria. Beste puntu garrantzitsu bat neutraltasuna da. IGPa osatzen duten pertsonak ez dute honetan parte hartzeagatik abantaila personalik ateratzen, ez datoz interes bat defendatzeagatik, horregatik dira neutralak. Parte hartzea benetako da, erreala. Denek parte hartzen dute, guztira

350 pertsona badira ere, 25eko taldeetan lan egiten dugulako. Gero, 5 pertsonako taldeetan banatzen ditugu denon parte hartzea bultzatuz.

- Zein dago IGPen atzetik?

- Lucio Ugarte antropologoa eta ni gara sortzaileak. Lucioek Canadako indioek izandako gatazketan lan egin zuen eta niri ardatzaren arazo hau komentatu zidanean, Alemaniako IGPen eredua



etorri zitzaidan burura. Gaia Arartekoaren belarrietara heldu zen eta EUDELekin batera, jardunaldi batzuk antolatu genituen Oñatin. Handik lehen proiektua sortu zen, eta gero, "Laboratorio de estudios sociales" sortu



■ ■ Maltzagako gurutzebidea Plaentxitik ikusita. Errepidearen trazatuak bailara itxuralda dezake.

eta beste faktore batzuen arabera. Talde hauek 18 urtetik gorako pertsonen osatuak daude eta 80 urte inguruko pertsonak ere badaude. Ikasleak, langabetuak, jubilatutak,

langileak, etxeakoandreak,... lanbide eta egoera guztietako jendea dago eta erdiak gutxienez, emakumeak dira. IGP hauetan, 16 bat elgoibartar daude, zortzi lehen

asteko taldeetan, eta gainontzeko zortziak bigarren asteko taldeetan. Aipatzekoa da, IGPetan parte hartzen dutenei ordaindu egiten zaiela. Lan egiten duenari, baja

ordaintzen zaio Seguritate sozial eta guzti, eta gainontzekoei, langabetu, ikasle, etxeakoandrea eta abarrei, eguneko 5.000 pezeta ematen zaie.

genuen.

- Nork erabaki zuen IGPak Maltzaga-Urbinan aplikatzea?

- Haseratik Eli Galdos oso interesaturik zegoen gure proiektuetan. Gero, Maltzaga-Urbinako proiektua azaldu zitzaionean, eta Leizarango autobidearen inguruko gatazka aurrekari izanik, gurekin harremanetan jarri ziren IGPak Maltzaga-Urbinan aplikatzeko.

- Zer leku dute autopistaren aurkako taldeek IGPetan?

- Proiektuarekin hasi aurretik, Udal guztietako alkate eta zinegotziekin egon ginen, asanbladak

egin genituen biztanleekin egoteko eta, buzoiak ireki genituen pertsona zein taldeak hizlari gisa egoteko IGP hauetan. IGP hauetan era guztietako talde eta kolektiboak daude, aldekoak zein kontrakoak. Nork bere ikuspegia eta iritziak azaltzen ditu neutralak diren IGPen aurrean. Mekanismo honen bidez gatazka sozial bat ebitatu nahi izan da.

- Zer puntutaraino eragin dezakete IGPen erabakiek Jaurlearitza proposamenean?

- IGPak ez direla binkulanteak esaten dugu beti eta agian ez da ondo interpretatu. Juridikoki ez dira


binkulanteak ez dutelako oinarri legalik. Borondatez egiten da. Hala ere, hemen ateratzen denak bere pisua izango du eta handia gainera, haseratik bukaerara arte, prozesu guztia publikoa delako. Emaitzak kaleratu egingo dira eta guztiaren berri emango da, gero nahi dutena egiteko. Hau dena egin eta hiritarren gomendioei bizkarra ematea, politikoki zentzugabekoa eta arriskutsua dela uste dut. Momentuz behintzat, gatazka ireki bat ez sortzea lortu dugu. Hiritarren gomendioak ez badira aintzakotzat hartzen gatazka sor daiteke.

Bost egun, buru belarri

Goizeko 8,30etan hasten dira bilerak Kultur Etxean eta arratsaldeko 6,30ak aldera bukatzen dute. Dinamika hau bost egunetan zehar jarraitzen du IGP bakoi-tzak. Lehen hiru egunetan talde eta erakunde ezberdinek hitzaldiak eman dituzte etengabe Deba bailararako irtenbide onena izan daitekeena IGPko kideei azaldu nahian. Haseran aholkulari batzuek, ingeniariak, ingurugiro teknikariak e.a. gaia lantzen dute eta IGPko kideek gaiarekin lehen harremana izaten dute. Ondoren prospek-

IGPetan galdezka

Paulo Arriola



Espertoen iritziak entzun ondoren IGP hauetan parte hartuko duen elgoibartar baten iritzia jakin nahi izan dugu. Paulo Arriola aste honetan izan den 25 pertsonatako bi IGP horietako batean egon da.

- Paulo, zergatik erabaki duzu IGPetan parte hartzea?

- Deitu egin zidatelako erabaki naban honetan parte hartzea. Iritzia gutxitan eskatzen digute eta

behin eskatzen digutenez, ematea erabaki dut. Gainera, gauzak asko errazten dizkizute. Ni bertakoa naiz baina kanpotarrei hona etortzeko erraztasunak ipini jakuez.

- Garrantzitsua iruditzen zaizu IGPak bezalako prozesu batean parte hartzea?

- Bai, bueno... inportantia da, baina gero ikusten dozu bakoitza berea esatera datorrela eta norberaren iritzixak gutxi balio dabala.

- Orain arte entzundakoari buruz zerbait esateko?

- Talde ezberdinek azaldu dutena interesgarria iruditu jata baina oraindik gaiari buruzko iritzi garbirik ez daukat.

- Gauzak entzun ahala iritzi bat osatzen joango al zara?

- Bai. Ni informazio bila etorri naiz hona eta jasotako informazioarekin iritzi bat formatuko dotela uste dot.

zio hitzaldi bat ematen zaie eta gero, presio taldeen hitzaldiekin hasten dira (talde ekologistak, Gipuzkoako Bazkunea, alderdi politikoak, Jaur-larritza...). Talde guztiek hitz egiteko denbora berdina dute eta ondoren IGPak osatzen dituztenak galderak egiteko aukera izaten dute. Lau-garren egunean autobu-

sez ardatzak izango duen ibilbidea bisitatzen dute eta azken egunean galdeketa bat bete behar izaten dute eskaini zaizkien proposamenak ebaluatuz. Haseran arazoari buruz ezer ez dakien pertsona, gehien dakiena bihurtuta irteten da IGPetan egon ondoren. Hans Harms-en ustez, 40 ordu gaiari buruz hitz

egiten eta eztabaidatzen ematen duenak "erabakia hartu behar duen politikoak berak baino gehiago jakin dezake bukaeran".

Gazte Asanblada kanpoan

Elgoibarko Gazte Asanbladak bere burua IGPetan hizlari gisa egoteko proposamena aur-

keztu zuen bere garaian Udaletxean jarritako buzoian. Gazte Asanbladako kideen esanetan, IGPetako arduradunek ez zuten beraien proposamena onartu. Gazte Asanbladako kideek Kultur Etxean bildutako arduradun diren Ugarte eta Harms-ekin hitz egin zuten, eta hauek ez zutelako Gazte Asanbladaren proposamenaren berri eduki adierazi zieten. Ordu erdi inguruz hitz egiten egon ondoren, Gazte Asanbladaren proiektua Udaletxera iritsi bazen ere, ez zela IGPen arduradunen eskuetara heldu jakin ahal izan zuten Gazte Asanbladako kideek.

Gazte Asanblada Deba bailaran autopista egitearen kontrakoa da, proiektuak naturaren suntsipena dakarrelako eta ekonomikoki aginte eta botere zentrueri baino ez dizkielako etekinak emango.



■ ■ Bost egunetan zehar talde eta erakunde ezberdinen proposamenak entzuten

**Arduratu zuen haurrek
euskaraz ikas dezaten!!**



Elgoibarren irakaskuntza euskaraz izango da.

ETORKIZUNA EUSKARAZ DATORRELAKO !



ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea



ELGOIBARKO
UDALA

BATZOKIA**JATETXEA
ETA
TABERNA**

P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

MALAPE**Logopedia
Zentroa****Isabel Gil Arrocha**

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B
Tel. 11 84 71 EIBAR

ASTE HONETAN

Emakumea eta eraso sexualak

Tristeki ospetsuak dira hainbat emakumek pairatzen dituzten eraso sexualak, tratu txarrak, bortxaketak, umilazioak... informazio bideetan izenburu deigarritz gizarteko miserietaz baliatuz negozioa egin nahi duten horien eskutik.

Eta tristeki ezaguna zaigu hone-lako zenbait kasu isilean izkutaturik dauden begiraden, propagandaren, edota eskandaluaren lotsaz; beldurrez.

Etxean jasotako zein eskoletako hezkuntza sexista eta informazio bideek hedatzen duten masa kulturaren bitartez, emakumea-sexu debila-sexu objetua irudia saltzen zaigu. Patriarkadoak idatzitako historian emakumeak beti bigarren maila batera marjinatuak izan gara, gizonaren menpeko zerbitzari egoerara mugatuak, eta gertaera guzti hauek, hainbat pertsonari zera sinestarazi dio: emakumeok, gionezkoek diotena egitera prest egon behar dugula, haien menpe eta haien beldur.

Guk, gure askatasun sexuala, gure baloreak eta emakume bezala harro eutsi behar dugun duintasuna

aldarrikatzen dugu, aukera eta berdintasun osoko gizarte berri bategatik borrokatuz, bai emakume zein gionezkoen eskutik etorriko dena.

Guzti honegatik gogoratu nahi duguna zera da: eraso sexualaren SALAKETA beharrezkoa dela. Ildo honetatik, beldurrik gabe gure aurka-ko erasoei adinako indarrez erantzun behar diegulako, min gehien ematen dien lekuan: gaurko eraso sexual bat salatzeak biharkoa ekidin dezakeelako.

SALATU ERASO SEXUALAKIDOIA MARTINEZ
"KALERA" Emakume
Gazteen taldeko kidea**ASESORIA
GOZAR****AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLOKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLOKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

ORAIKO
SAN FRANZISKO 25
ELGOIBAR

Salatuko al zenuke eraso sexualik jasanez gero?



ANA ROSA HERNAEZ
24 urte, umezaina

Bai. Nik kasuaren arabera salatuko nuke, segun eta zein motako eraso izan den. Egia esan, ez dakit egoera hauetan emakumeek zer egiten duten.



AINHOA KASTRILLEJO
22 urte, etxeoandrea

Bai. Gehiago ez da salatzen jendeak beldurra daukalko. Askotan gertatu izan da kasu bat salatu eta, gainera, emakumea probokatzen zegoela entzutea.



MARI JOSE TRUEBA
35 urte, administraria

Baietz uste dut. Askotan bildurra ere ematen du, lotsa piskat beharbada, horregatik emakume asko ez dira ausartzen horrelako erasoak salatzen.



PILAR AGIRREZABAL
62 urte, etxeoandrea

Bai, dudarik ez. Jendiak asko isiltzen dau, bildurra dago. Soziedadian gauza asko esaten dira eta... Nik beti denuntziatuko neuke.



ROSA M. RODRIGUEZ
31 urte, Klinika auxiliarra


Bai. Niretzat eraso sexuala izango balitz, dudarik gabe. Oso garrantzitsua da emakumeok horrelako egoerak salatzea.



MARI CARMEN AZPIAZU
51 urte, etxeoandrea

Bai. Orain dala 25 urte edo kasu bat eduki eta denuntziatu naban, juiziua ere egon zan. Oso gaizki pasatu naban.

IBAI Gimnasioa



Presta ezazu zure gorputza udarako IBAI gimnasioan.
Anima zaitetz!!

- GIMNASIA • AEROBIC
- JUDO • MUSKULAZIOA
- TAEKWONDOA
- HAURDUNENTZAKO GIMNASIA

■ Larunbatean intsumisoen aldeko manifestazioa

Elgoibarko Talde Antimilitaristak manifestazio baterako deia zabaldu du larunbat honetarako, hilak 5. Izan ere, datozen bi hilabeteotan, Elgoibarko lau intsumiso epaituko dituzte eta manifestazioa, egoera hori salatzen antolatu dute. Manifestazioa Maalako parketik hasiko da iluntzeko 7etan.

■ Jaialdi-erakusketa izango da Herri Eskolan

Elgoibarko Herri Eskolak urteko jaialdi-erakusketa ospatuko du larunbat honetan, hilak 5. Eskolak goizeko 10,30etan zabalduko ditu ateak eta arratsaldeko 6ak arte ez dira itxiko. Egun guztian zehar eskolako arlo ezberdinak martxan ikusi ahal izango dira. Horrez gain, gaztelu puzgarri bat eta taberna ere zabalik egongo da. Herri Eskolak guraso eta herritar guztiei bertara hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi die.

■ Zazpikik irratsaio bereziak antolatu ditu martxorako

Zazpiki irratiak irratsaio bereziak eskainiko ditu martxoan zehar. Hilaren 8an, emakume langilearen nazioarteko egunean, *Kalera* emakume taldeko kideek gaur egungo emakumearen egoerari buruz hitz egingo dute arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean. Egun berean, arratsaldeko 3etatik 8ak arte, *The Clash* talde britainiarrari buruzko monografikoa eskainiko du Zazpikik.

Irratsaio berezi hauetaz gain, "500 años" izeneko irrati nobela emango da martxoko astelehen, asteazken eta ostiral guztietan. Orduetgia eguerdiko 12,30etatik 1etara bitartekoa eta gaueko 10etatik 10,30etara bitartekoa izango da.

Gatza ateneoak gazteen eztabaidagune izan nahi du



Oso jende gutxi urreratu zen joan den larunbatean Kultur Etxera GATZA ateneoaren aurkezpenera. Elkartearen arduradun den Iñaki Uribe gazteak, ateneoaren izateko arrazoia azaldu zien bertara hurbildu ziren gazteei. "Gazteak tabernetatik irten eta eguneroko bizitzan dituzten arazoei buruz hitz egin eta eztabaidatzeko gunea izan nahi du

ateneoak. Ikasketak, alkohola, drogak, langabezia,... denetarik hitz egiteko aukera izango dugu ateneoan". Ateneoak duen arazo handien artean bilduleku edo lokal falta aipatu zuen Iñaki Uribek. "Lokala lortu arte, oso zaila izango da ateneoak normaltasunez funtzionatzea. Dena den, gazteen erantzunaren zain egon beharko lehenengo".



Udal Txistulari taldea dugu argazkian Azpeitin bi ekinaldi segidan egin eta gero. Joan berri diren bi igande hauetan Elgoibarko, Iruñeako eta Azpeitiko Udal Txistulariak elkarrekin jotzen jardun dute urtero burutzen duten topaketan barruan. Datorren urtean ere bertan izango direla adierazi digute txistulariek.

FERIASALTZAN

Landareak nabarmendu ziren otsaileko ferian

Elgoibarren aspalditik datorren tradizioa da hileko azken larunbatean feria ospatzea.

Urtetan heldua den azoka honek, halere, izaten du berritasunik, eta horiek bilduko ditugu guk atal honetan.

Ganadua ugari, landareak erruz eta makineria aldetik ere tamainan. Otsaileko feria hurbildu zirenek ez zuten, ez, gauza askoren falta somatuko. Jendetza polita bildu zen, kontuan hartzekoa, batez ere, hego haizeak jotzen zuelako eta horrelako giroa aparta delako baserri lanetan aritzeko. Ganadu aldetik aipatzeko salmentarik egin

zen, izan ere, behia eta txekorra 350.000 ptan saldu baitziren. Negozioa egiterik badago krisi garai hauetan ere, eskaintzen den abereak benetan merezi duenan, noski. Bestalde, landarea omen da garaian garaiko produktua, hazia ereiteko sasoirik aproposena orain da eta. Bazter guztietan ikus zitezkeen fruitu, baso zein era guztietako landareak. Horien artean nahastuz, hara hona ibili ziren Zabale anaien trikitilari eskolako gazteak, hiru hilebetetik hona feriar jai-giro bereziago bat ematen saiatzen direnak. BARREN da testigu lortzen dutena.



PROTAGONISTA



Mari Karmen Jainaga

"Hilero hilero etortzen gera Elgoibarrera, maiatza arte. ". Mari Karmen Jainaga Berriztar gaztearen hitzak dira horiek. Biberoa daukate baserrian eta azokaz azoka ibiltzen omen dira landareak saltzen. Esan digunez, "guk piñuan azala erabil-tzen dogu, trituratu eta gero lurrari nahasten detzau. Ikusgarria da haziak ereiteko; proteina asko dauka. Es fabuloso! Azideza moduan dauka eta landare askori komeni jakue. Landare bakoitzak ba omen dauka ereiteko sasoirik, Mari Karmenek adierazi bezala, "une honetan baserritarrak gehixen landatzen dabena fruta-landariak diaz. Orain arte zelan lagata eduki daben, lehena-ko klasia galdu egin jakue: sagarra, txermena... Eta oiñ ari dira aintzinako klasia ipintzen. Berriak ipintzen ditxue produzirona edo langabe dauzenak bakarrik, "medio de vida" bat eitzeko. Ganadua bezela, gizonak erosten ditu landareak ere, "baina gero baserrixan loria zaindu eta mimatzen dabana emakumia izaten da gehixen-bat". Martxoan ospatzen da Zuhaitz Eguna eta inor zerbait landatzeko asmotan badabil, hara bizkaitar honek gomendatu diguna: "haritza eta pagua, autoktonuak izatiaz bat bixar-etzirako be politak gelditzen diraz".

Zer da Kupoa? Ba al daukazu kuporik?



Europako nekazal politikaren eraginez, esnea eta haragia ekoizten duten baserritarrek errenta murrizketa handia jasan dute. Hau dela eta, Europako Ekonomi Elkartek nekazarien egoera arinduko duten zuzeneko laguntzen

sistemak martxan jarri ditu.

Ardi edo ahuntzentzat kupo sistema bat ezarri da. Ganadu hauei dagokionez, kupoak urteko eta buruko 3.000 pta inguruko dirulaguntza jasotzeko eskubidea ziurtatzen du. Abeltzain bakoitzak eskubide horien muga bat du, norbanako muga deritzana. Aurtengo otsailean behin-betirako muga hau zenbaiteko den jakin arazi da. Muga hori hiru bide ezberdinetik lortutako eskubideekin finkatzen da: zuzeneko izendapena, erreserbakoak eta transferentzien bidez eskuratutakoak. Zuzeneko izendapenean, 1991an aitortutako ardi (edo ahuntz) kopurua oinarritat hartzen da. Urte horretan dirulaguntza eskatu ondoren jaso eta 1992an berriz eskatu zuten baserritarrek zuzeneko izendapen hau dute. Honetaz gain, baserritar hauek, Estatu Espainiarraren kupo erreserbatik, eskubide gehiago eskatzeko aukera izan dute. Baina, Euskal Autonomi Elkartarako 7.000 ardintzako kupoa erreserbatua egonik eta 30.000 ardientzako eskaerak egin direnez, eskari batzuk bakarrik onartu dira. Beraz, urte haietan ardiak ez zituztenek, edo laguntza eskatu ez zuten baserritarrek, gaur ez dute, ardiak eduki arren, hauei legokien dirulaguntza jasotzerik izango.

Gerta daiteke, baserritar batek ardirik ez izatea eta 1991n zituen ardiei zegokien dirulaguntza jasotzeko eskubidea izatea, edo orain ardiak edukita hauentzako dirulaguntza jasotzeko eskubideak edo kupoa ez izatea.

Egoera horri irtenbidea emateko, transferentzien bidea dago: ardiak eta hauen prima jasotzeko eskubidea erosiz eta, norbaiten kupoa lortuz. Aldaketa hauek egiteko epea 1994.eko otsailaren 15etik, apirilaren 15a arte da.

Halere, E.A.Ean kupo osoa baino ardi gehiago egonik, behar adinekoa ez den kupoa eskuratu nahi dutenek honen truke dirua eman beharrean aurkitzen dira.

Ardientzako dirulaguntza eskaria egiteko epea martxoa izango da. Baserritar bakoitzak dituen ardi edo ahuntzak aitortzen ditu. Bajaren bat izan ezkerro, Nekazal Bulegoan komunikatu behar du. Gipuzkoako foru Aldundiak aitortzen horietan baserritarrek esandakoa egia den ala ez jakiteko inspektzio batzuk egiten ditu.

Aurten, joan diren bi urteetan bere eskubideetatik erdia baino gutxiagoko "apuntea" (dirulaguntza eskatzen denean aitortutako ardi kopurua) ematen dutenek, erabili gabeko eskubideak galdu egingo ditu eta hauek, Espainiako erreserbara pasatuko dira.

KARMEN KORTA
(Nekazal bulegoko teknikaria)




Manuel Zigorraga, 66 urte, Ipintza baserria

Oiñ ari dia kanpañia eitzen. Lehenengo etzaula esan zien, ta gero banakala, hamarrena. Hamalau ardi dauzkat kupuakin baina bestiak apuntatu be.

Jose Mari Egaña, 43 urte, Mintxeta baserria

Nik 83 ardin kupua daukat. Ona da kobratzeko segidan, baina ostian, ez dakit ba, bentia hobeto egongo balitz.. Arkumian prezia oso jausixa dago.



Jose Mari Azpiazu, 44 urte, Potzueta baserria

Aurreko urtian ardi batzuk sartu genduzen kupuan, gero gehitu genduzen batzuk baina esan ziguten etzaula horrek aurtengo kupuan sartzerik, konpletatuta zauala eta. Kupua eman ezkerro ona da, hor ez dago dudarikan.



Anjel Arrizabalaga, 55 urte, Azkarate baserria.

Ni kupo asuntuan oso baju nago, oin dala bi-hiru urtekua eitzen die, aurten ere jun naiz eta ez tie eman. 60 ardi dakazt eta 30en kupua bakarrik, gastatu ein omen dia erreserbak. Kupua subentziuak emateko da ona.



Jon Urkiola. 38 urte, Muniozguren, Markina.

Kupua da karamelua eman gero txiklia kentzeko. Ardi asko dakanak galdu eitzen dau horrekin. Baserritar batzutan beste ganau askon artian ardi batzuk jartzen ditzue eta horiek ardi gehiau dakagunok beste kobratzen dabe.



ARRIAGA AUZOA

“Pozez beterik kantatzen gaude San Antolinen eguna, hartu gaitzan gero zeruan o santu maitagarria”

Ez dakigu Elgoibarko beste auzoek ere abesti bana izango duten. Printzipioz, eta hasteko, San Antolini heldu diogu. Eta kontatu digutenez, sasoi batean, irailaren 2an, herriko jende ugari hurbiltzen zen auzo honetara. San Antolin eguna ospatzen da data horretan, eta garai batean, bertan altxatzen zen ermitaren inguruan, jai entzutetsuak antolatzen zituzten baserritarrek. Erromeria ere egon ohi zen, bertsolari eta guzti. Eta gazteek tabernatxo bat jartzen zuten, irabaziekin gastuak ordaintzeko. Baina autopista eraiki zuten, ermita bota, industrialde erraldoi bat gauzatu zen... Garai berriek San Antolin eraldatu zuten, fisikoki ezezik, baita izaera alde-tik ere.

Gaur egun 14 baserri daude eta etxeak ere badira. Biztanle guztientzat, denda eta taberna bana daude.

Dagoeneko ermitarik ez dute, baina tabernaren atzekaldea egokitu zuten bertan kapera bat eraikiz. Han ematen dira igandero elizkizunak.

Eraikuntza ederrik ere bada San Antolinen. Zabale-Torre baserria dugu horietako bat. 1451. urtean Ibañez Zabalarena zena. Dirudienez, Oleta baserria dagoen lekuan ola fabrika bat zegoen aintzina. Bertan, burdina urtzen zen, gaurregun Labe Garietan egiten den antzera. Baserria berri zutenean ere, zepa aurkitu zuten, burdina urterakoan geratzen den salda zikinaren arrastoak, hain zuzen. Gainera, uraren bitartez energia indarra lortzeko zentral bat dago, martxan oraindik ere. “Apraiz Bekoa” n, berriz, ur-errot bat aurki daiteke.



San Antolin auzoko ermita autopista egitean bota zuten

JAKITEKOAK

- **BASERRIEN ZERRENDA:** Apraiz, Apraiz Goikoa, Arriaga, Etxeberri Metal, Gortazar, Irabaneta, Karkizano, Lizundia, Lizundia Txabola, Medarizubieta, Muniola, Oleta, Palazio, Zabale.
- **BIZTANLEAK 137**
- **SAN ANTOLIN EGUNA:** Irailak 2 (Ez dago jairik)



AUZOETAKO ALKATEEKIN BERBETAN

Migel Juaristi :

“Auzo diferentia da autopistia egin zenetik”

kate lau urterako.

.- Zein da zure funtzioa?

- Arazorenbat dagoenian, eskaera bat, zerbait gaizki badago... guzti horiek korrejidu, ahal dan bezela. Ni alkate nagoen denboran ez da ezer inportanterik egon.

.- Eta Azkotiko bide berriarekin?

- Sekula ez dute kontsultatu nerekin. Horrekin ez det ez aurrera ez atzera eman, eta ez det sekula inun presentatu beharrik izan. Horren gorabeheriak ez dit neri afektatu. Ez didate parte eman. Nik jakin beharrekua zan hori, baina...

.- Kurioso da San Lorentzon tabernaren a-

tzeko partean egotea eliza.

- Lehen bazan eliza oso politxa, baina autopistia eitzeko bota egin zuten. Dirua eman zen haren truke eta beste bat eitzeko asmua ere bazuan, baina seriotasunik ez. Diru harekin lokalak erosi ziran. Gaur egun dendia, tabernia eta kapillia daude bertan. Dana dala, kapillia sortu aurretik, sardandegi bat omen zegoen han, mahai, kupel eta guzti.

.- Nolako giroa dago auzokiden artean?

- Lehen jaiak eta ospatzen ziranian oso harreman sendua egoten zan elkarrekin. Baina asko aldatu zan autopistia eitxiakin.

Jaiak ere desagertu ziran, poliki-poliki. Orain gazte gutxi gaude eta ez gara auzoan biltzen, gero Elgoibarren ikusten geranian ezagunak eta oso lagunak gera, baina San Antolinen bertan ez dago gure artian elkartzeko ohitura handirik. Akaso behe partian bizi diranak, taberna inguruan edo...

.- Baserrian betirako?

Behin edo behin planteatu izan dot herrira jeixtia baina... Iguar errazago izango nuke gurasuak ikusi banitxu herrira juten lanera. Dana dala asko gustatzen zait ganadua, lotura arazo handia da. Ondo ez, baina hainbeste defenditzen gara.

.- San Antolin ala Arriaga?

- Nik esango nizuke biak. Berez, San Antolin izan da beti, baina poligono industriala egin zutenean Arriaga jarri zioten.

.- Nola aukeratzen da auzoko-alkatea?

- Ixileko botazioa egiten. Ez da kandidaturik egoten. Bakoitzak nahi duen izena idazten dau eta botu gehixen lortzen dabana, haxe izendatzen da al-

Kalea eta baserria:

Mundu ezberdinak baina lotuak



Idoia Esnaola elgoibartarrak Nekazal Injenieritza Teknikoa izeneko ikasketak egin zituen. Hiru urtez Atarrabiako Eskola Unibertsitarioan izan zen, gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoaren barne dagoena, eta proiektua aurkeztu ondoren, iaz jaso zuen titulua. UBI bukatzeaz zegoela, natur zientziak gustuko baina zer egin jakin ez eta karrera ezberdinetaz informazioa bildu ondoren, baserriarren munduarekin lotua dauden ikasketak egiteari ekin zion.

- Matematikak, kimika, biologia..

- Bai, ohizko ikasgaiak eman genituen haseran. Bigarren urtean, aldiz, bi adar daude aukeran, horietariko bat aukeratu behar delarik: industria eta nekazal ustiakuntzak. Lehenengoan produktu ezberdinak aztertzen dira, laborategiko lana, nolabait. Nik nekazal ustiakuntzak egin nituen: baserria eramateko zer egin behar den, ikulilua nola egokitu, landareak aztertu...

- Nekazari izateko ere ikasi beharra dago, beraz.

- Ez, dudaripe baserriarren semeek kalekoek baino gehiago dakite, praktikoki behintzat. Ikasketa hauen bitartez produkzioa hobetzeko teknikak ezagutzen dira.

- Teoria bai, baina praktikak?

- Badaude, baina gutxi, oso gutxi. Negutegi bat zegoen eta bertan aritzen ginen landare eta barazkiak kimatzen, txertoak egiten...

- Zein irteera ditu?

- Baserriko instalakuntzak, uzta, guzti horiek nola hobetu daitezkeen aholkatzeko bulego eta zerbitzuak daude. Nekazal munduarekin zerikusia duten industrien gestioa ere eraman dezakegu, neurketa topografikoak egin...

- Joango al zinake baserrira bizitzera?

- Mementuz ez daukat asmorik. Arrazoi nagusia ekonomikoa da. Gaur egun kaletik baserrira joateko terrenoa erosi behar da, produktua eta tresnerian inbertitu... Guzti horrek dirua eskatzen du, eta ez dagoenez... Dena jarriko balidate joango nintzeteke, kaleko bizitza gustatzen zaidan arren.

- Ezagutzen al dugu elgoibartarrok baserri mundua?

- Elgoibarko baserri gehienak ez dira baserrian lan egitetik soilik bizi, familiako norbaitek kalean egiten du lan, biak konpartituz. Hori dela eta, lotura bat dago kalea eta baserriaren artean; jadanik ez dira bi mundu ezezagun, banatu eta kontrajarriak.

- Ezagutzen al dugu benetan bertako produktua?

- Informazioa eman behar zaie, baserriarrei ezezik baita kontsumitzaileeri ere. Erosleak bertako produktua kanpokoengandik bereizten jakin behar du. Era berean, jakin behar genuke zein neurritan eragiten dion Euskal Herriari bertako produktuak erosi eta jateak, edo kanpokoak kontsumitzeak. Baserriarrek badute informazioa eta ikastaroak ere jasotzen dituzte. Kaletarrei, ordea, ez zaie ezer azaltzen. Egiteko asko dago arlo horretan.

PORRUAK

■ **BITXIKERIAK:** Galiarrek beren kasikoetan porru txortak jartzen zituzten elementu magiko eta babesleak zirelakoan.

Neron enperadore erromatarrek porruak jaten zituen ahotsa garbitzeko.

■ **FAMILIA:** liliazea.

■ **IZEN ZIENTIFIKOA:** Allium porrum.

■ **KLIMA:** Epel eta umela bereziki. Hotzaren aurrean erresistentzia handikoa.

■ **ZOLUA:** Sakon, aberats eta freskuak. Ez zaizkio komeni zolu alkalinoak.

■ **EREINTZA:** Gune oso hotzetan martxo-apirila bitartean. Klima epelean urte osoan.

■ **BILKETA:** Ereintza egin eta bošt-sei hilabetera.

■ **LABORANTZA ELKARKIDEAK:** apioa, espinaka, letxuga eta azenarioa.





Santa Klarako komentua Asisko Klararen jaiotzaren VIII. mendeurrena ospatu du astean zehar. Hori dela eta, bost hitzaldi burutu dira Santa Klararen bizitza eredutzat hartuta. Arturo Garcia ekonomilariak eta Sor Maria Triviño teologoak behartsuei buruz hitz egin zuten. Triviño teologoak gaur egun klausurako bizitza eta emakumea aztertu zituen bi hitzaldi ezberdinetan. Joxin Arregi herriko apaizak Santa Klarako monjen lanaz jardun zuen eta azken hitzaldia Asisko Klararen bizitzari buruzkoa izan zen. Hitzaldiok Santa Klarako Komentuko kaperan burutu dira eta herritarren erantzuna oso ona izan da.



Elgoibarko Izarra eta Sallobente Elkartek pasa den larunbaterako antolatutako bertso afariak erantzun ezinhobe izan zuten. Bertara joandako 60 lagunek Joxe Lizaso eta Imanol Lazkanoren bertsoak entzuteko aukera izan zuten, hori bai, bertan zeuden Armaita eta German Meabebasterretxeak ere kantatu behar izan zuten bertsolarien eskariz. Bestalde, ezin aipatu gabe utzi Imanol Lazkanoren txiste errezitaldi paregabea. Jendeak izan zuten, beraz, zer gozatu eta errepikatu beharreko esperientzia izan daiteke.

■ Autobusa Elkarriren manifestaziorako

Elkarri elkarteak, elkarrizketa eta pakearen aldeko elkarteak, "Elkarrizketa eta distentsioaren alde" lemapean, manifestazioa antolatu du Bilbon datorren hilaren 12rako arratsaldeko 5etan. Elgoibarko Elkarriko tailerrak, autobusak jarriko ditu manifestaziora joateko. Bertara joan nahi duen edonork izena eman beharko du lehenbaitlehen *Garate* jantzi dendan edota Elkarriko tailer lokaleko kideren batekin harremanetan jarri.

■ Ezindu fisikoei zuzendutako beka

Elgoibarko Udaleko Ongizate Zerbitzuak ezindu fisikoei zuzendutako Lanbide Heziketarako beken XVIII. deialdia irekita dagoela jakinarazi nahi du. 1994-95 urtealdirako beka hauek FREMAP izeneko erakundeak antolatutakoak dira. Informazio gehiago jasotzeko Udaleko Ongizate Zerbitzura zuzendu edota telefono zenbaki hauetara deitu: 74 37 36 edo 74 10 08.

■ AEKren aldeko manifestaziora autobusa

Larunbatean, hilak 5, AEKk manifestazioa egingo du Bilbon "Euskara ikastea, denon eskubidea" lemapean, joan den urtetik, euskaltegi libreetako ikasleak subentziorik jasotzen ez dutela salatzeke. Manifestaziora joateko, herriko AEK euskaltegiak autobusa antolatu du eta joan nahi duenak, AEK euskaltegian eta Oiz- Mendi eta Txuri Beltz tabernetan eman dezake izena. Autobusaren zenbatekoa 600 pezetakoa da eta irteera Sigmatik izango da arratsaldeko 4etan.



Udaletxean hiru peoi behar dira

Oraindik boletinean atera ez den arren, 92 pertsona aurkeztu dira, dagoeneko, lanpostu hau bete asmoz. Boletinean argitaratu ondoren 20 egun utziko dira izena emateko.

Berrikuntzak egingo dira tren geltokian

Minusbalia fisikoren bat duten pertsonentzat zenbait hobekuntza egingo dituzte Elgoibarko tren geltokian.

Arrapala berriak egingo dira, lehendik zeudenak zuzenduko eta ateen zabalera ere handituko da. Horrezaz gain, langileen bulegoetan ere izango da berrikuntzarik, besteak beste, komunak eta aldagelak jarriko dituztelarik.

Bileteak erosten diren barrutian arrapala bereziak egingo dituzte gurpil-aulkientzat, horien bitartez, zuzen-zuzenean irten ahal izango direlarik andenera.

Kanpoan, andenen artean badi-
ra arranpala batzu, baina bortitz eta

aldapatsuegiak dira. Horiek kon-
ponduko dira, leun eta lauagoak
eginez. Geltokiko zoladura ere
hobetuko da.

Sarrera eta irteera atean izan-
go da aldaketarik. Sarrerakoa, adi-
bidez, bikoitza izango da, orain arte
ate bakarra izan badu aurrerantzean
bi izango ditu. Neurri aldetik, zaba-
lera handituko zaio, 0,80 zm izate-
tik, 1,90 era pasatuz. Andenera
daraman atearen norabidea ere mol-
datuko da, barrurantz beharrean
kanporantz irekiko delarik.

Eusko Tenbideak da proiektu
honen bultzatzailea eta finantziatio-
az arduratu dena. Dagoeneko hasi
diren obrak hilabete barru amaituko
dira, gutxi gora behera.



Plaza merkatuko postu bat eman zaio Txillarre baserriari

660.000 ptaren truke, postu bat eman berri da merkatu plazan. Eroslea Pello Rubio Urbieta da, Txillarre baserrikoa. Aurrerantzean, baserriko produktuak izango dira salgai bertan.



Udaletxeak emandako zenbait dirulaguntza

- 6.463.644 pta Musika eta Dantza fundazioari, otsaila, martxoa eta apirilko gastuetarako.
- 430.000 pta haurrentzako jolas-toki bat egiteagatik Altzolan.
- 3.885.875 pta Maala eta Karkizanoko parkeetako haurren jolasengatik.
- 464.600 pta Hezitzen Elkarteari, gurasoei zuzendurik antolatu zuten drogomenpeketasunaren prebentziorako ikastaroagatik.



UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



- ▲ **IZENA:** Blanka Salegi.
- ▲ **ADINA:** 26 urte.
- ▲ **IKASKETAK:** Gizarte laguntzailea eta animatzaile sozio-kulturala.
- ▲ **LANPOSTUA:** Kultur teknikaria.
- ▲ **FUNTZIOA:** Kultur elkarte, heziketa eta gazteekin zerikusia duen ororen koordinazioa. Urtean zehar herrian egongo diren festa eta ekintza kulturalen ardura. Kultur etxearen

gestioa. Eta abar...

- ▲ **NOIZTIK LANPOSTU HONETAN:** 1989tik
- ▲ **LANAREN ALDE ONA:** Era guztietako pertsonak ezagutzeko aukera ematen du, kultur munduan era batera edo bestera sartuak dauden pertsonak, askotan oso bereziak.
- ▲ **ALDE TXARRA:** Lan burokratikoak.

Secundino Arkauz
"Arkauz"
ferreteriakoa



- "Arkauz" nongoa da? ▶ Ni Aretxabaletakua naiz baina uste dot Franziatik datorrela.
- Nolatan etorri zinen Elgoibarrera bizitzera? ▶ Orduan han lan eskasia zauan eta hemen augia zualako.
- Zenbat urte ferreteriarekin? ▶ 18 urte.
- Eta aurretik "Azafata"rekin? ▶ 15 urte.
- Zerk bultzatu zintuen aldatzera? ▶ Kafeteria neukala giltzak egiteko makina ekarri nuen eta lizentzia atera ondoren lana edukiko nabala ikusita, gainera asteburuak jai...
- Aldaketa haundia izan al zen? ▶ Nik Aretxabaletan 10 bat urte egin nituan giltz asuntuan eta neretzat ez zan salto haundixa izan.
- Noiz gustatuko litzaizuke jubilatzea? ▶ Ni jubilauta nao baina neretzat entretenimendu bat denez, laguntzen segitzen dot.
- Aintzinako ohiturak errespetatzearen aldekoa al zera? ▶ Bai, baina gaztiak gehixao tiratzen die neri.
- Elgoibarren galdu den zerbait berreskuratzeko aukera izanda... ▶ Erromerixak, plazan dantza eitzeke musikia...
- Ba al daukazu ebitatzea gustatuko litzaizukeen biziriorik? ▶ Ez, ez daukat.
- Periodikoa, aurretik atzera ala atzetik aurrera? ▶ Ni deportietatik hasten naiz, gero herriko kartak, eskelak eta telebistako programazioa; politikarena etxata bat ere gustatzen.
- Urtaro bat hautatzekotan? ▶ Udia.
- Eta bizitzeko leku bat? ▶ Udan Donostia eta neguan Mallorca.
- Zer da bizitza honetan garrantzitsuena? ▶ Osasuna eta familixan ambiente ona.
- "San Jose" egunean zerbait jausiko al da? ▶ Igual zeozer bai.

BELEN ARRIZABALAGA

Ildefonso Maria Lizarriturri

Musikoa (1859-1935)



- 1859ko urtarrilaren 23an jaio zen.
- Piano, armonia eta konposaketa ikasketak burutu zituen Madrilén.
- 19 urte zituela, Armoniako 1go saria lortu zuen.
- 1885ean Elgoibarko San Bartolome Parrokiako organujole izendatu zuten.
- 1902an Donostiara joan zen San Vicente Parrokiko organujole; 1919an 60 urte zituela, eta gaisotasun batek jota, lana utzi behar izan zuen.
- Txisturako hainbat eresi konposatu zituen bai eta eliz-musikari buruzkoak ere, hainbat lehiaketa irabaziz.
- 1935eko urriaren 6an hil zen, Donostian.



*Familiakoren bat edo lagunuen bat hiltzen bazaizu
BARRENEK sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak
edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*

MOTZAK

Fondoko eski ikastaroa

Morkaiko Mendizale elkarteak fondoko eski ikastaroa antolatu du datorren hilaren 19 eta 20ko astebukaerarako. Prezioa 8.500 pezetakoa izango da bazkideentzat eta 9.500 pezetakoa, berriz, bazkide ez direnentzat. Bidaia, afaria, gosaria eta ohea prezioaren barne daude, baita ikastaroa bera, tresneria eta pistetara sarrera ere. Izena emateko lehenbaitlehen zuzendu Morkaiko elkartearen lokalera edota telefonoz deitu 74 02 97 zenbakira, plazak mugatuak izango baitira. Irteera hilaren 19an, goizeko 6etan, izango da Foruen plazatik.

Areto futboleko jokalariai Gipuzkoako selekzioan

Elgoibar Areto Futbol taldeko hiru jokalarik Gipuzkoako 23 urtetik beherako selekzioan jokatu dute datozen hilaren 19 eta 20an, Gasteizen izango den Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako selekzioen arteko txapelketan. Jokalari hauek Aitor Elizburu, Jose Luis Gonzalez de Blas eta Juan Romero dira. Txapelketa honetan irabazten duen taldeak Espainiako txapelketan parte hartuko du.

Espainiako Areto Futbol Federakuntzak antolatzen duen txapelketa honen helburuetariko bat, 1996. urtean jokatu den Mundialerako jokalaria berriak ikustatzea da. Lerro hauen bitartez jokalaria gazte hauei zorterik handiena opa diegu.



Antonio G. Moreiras:

"Asko harritu nau ni aukeratu izanak"

■ **Zer iritzi daukazu Mujikaren kaleratzeaz?** - Asko harritu nau eta pena hartu dut lagun minuelako. Haseran oso harrিতта geratu nintzen. Klubak pisuzko arrazoiak izan ditu eta onena egin duen ustean nago. Zergatik? Ez dakit, baina jendeak ez zuen oso begiko. Tribunan, behintzat, hori ikusten zen.

■ **Entrenatzaile izateko zu aukeratu izateak harritu egin al zaitu?** - Bai, izugarri. Orain arte jubenilak entrenatzen ibili naiz eta astebetean dena aldatu da. Jubenilekin planifikatuta neukana hankaz gora geratu da. Dena dela, klubeko jendea dago lanaz arduratzeko. Ezer esan baino lehen, gauza bat argitu nahi nuke: ni Haundiren entrenatzailea naiz baina beste pertsona bat dago nirekin: Martin Molins. Molins-ek eta biok, Juanito deitzen diogu, erdibana egiten dugu lan, erdi eta erdi.

■ **Taldeak nola erreakzionatu du kaleraketaren aurrean?** - Haseran zertxobait harritu egin direla esango nuke. Baina arazoa konpondu eta aurrera egin behar dugu.

■ **Zeintzuk dira zure asmoak?** - Lau garren sailkatuarengandik 3 puntutara gaude, eta lau lehenengoan artean sartzen saiatuko gara. 3 puntu ez dira gain-



diezinak. Ez dakit 2. mailara igotzeko interesik dagoen, hori klubak esan beharko du. Badakizu askotan erabaki hori ekonomiaren arabera izaten dela. Gainera, momentu honetan 2B maila kentzekotan edo berregituratzekotan dabilta.

■ **Entrenamenduak gogortu egingo al dira?** - Ez, Bittor-ek preskakuntza egokia eraman duela uste dut. Lan hori bukatzen saiatuko gara. Dena den, fisikoki probetxu gehiago atera dakiokela taldeari uste dut.

■ **Etorkizunera begira, nora heldu nahiko zenuke?** - Beti klubean egon izan naiz eta aurrean zazpi garren urtea da. Nire helburu bakarra gaztetxoei futboleko jokatzeko irakastea izan da.

■ **Zer kenduko zenuke C. D.**

Elgoibartik eta zer ipini? - Kendu, tribunan bizi ohi den etsipen giroa. Jendea lasai egoteko eta ez desanimatzeko eskatutako nioke. Ipini, animoa ipiniko nuke, jokalariek behar izaten dute eta.

• Adina: 43
• Nork irabaziko du liga? Sei lehenengoan arteko edozeinek.
• Kinielarik egiten al duzu? Ez, eta loteriarik ere ez.
• Entrenatzaile ona izateko errezeta? Ezagutza eta gogor lan egin.



karkizano

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

Eskubaloiko jubenil taldea, Gipuzkoako txapeldun



Elgoibar K.E. eskubaloiko taldeko jubenilak, Gipuzkoako ligako txapeldun geratu dira bigarren mailan. Liga urrian hasi zuten eta guztira 14 partidu jokatu dituzte. Hauetatik hamairu, irabazi egin dituzte eta bat galdu. Argi geratu da, beraz, Elgoibarko mutilen nagusitasuna. Duela bi urte, talde hau beratu, Gipuzkoako txapeldun izan zen kadeteen kategorian.

18 urte inguruko gazteez osatutako talde hau, jubeniletako lehen

mailara igo berri da eta datozen hilabeteotan "Liga vasca" deritzon mailara igotzeko aukera izango dute. Igoerako fasea maiatzean bukatuko da eta guztira, 10 partidu jokatu beharko dituzte.

Taldea 16 gaztez osatuta dago, gero, kantxan, 12k besterik jokatzen ez duten arren. Patxi Aranberri arduradunak eta Josean Hidalgo entrenatzaileak esan digutenez, etorkizun handiko taldea da hau, eta senior mailan jokatu ahal izatea espero dute.

Xakeko 2. taldeak igoerako play-offa jokatuko du

Elgoibarko Zubi-Ondo xake elkarteko 2. mailako Elgoibar A taldeak igoerako "play-off" a jokatuko du San Andres taldearen aurkako partidua berdindu eta gero. Igoerako zein jeitsierako "play-off" a martxoaren 5ean hasiko da eta liga antzeko hau irabaziz gero lehen mailara igoko litzateke. Bigarren mailako Elgoibar B taldeak berriz, jeitsierako "play-off" a jokatuko du. Jeitsierako liga martxoaren 5ean ere hasiko da.

OHoko 50 haur Donostiako atletismo mitinean

Diario Vasco egunkariak urtero antolatzen duen Donostiako nazioarteko atletismo mitinera joateko aukera izan dute aurten, Udaleko Kirol Zerbitzuak gonbidatuta, Elgoibarko OHoko hiru ikastetxeetako 50 bat haurrek. Udal Kirol Zerbitzuak autobusa eta Anoetara sarrera ordaindu die haurrei. Donostiako atletismo mitin hau oso famatua da munduko korrikalari famatuenean parte hartzen baitute bertan.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 5

12,00: S. D. Eibar - Soraluze (1. jubenilak)

16,00: C. D. Elgoibar - Urola (Jubenilak)

17,45: Urki - Urola (2. erregionala)

Īgandea 6

12,00: Urki - Aretxabaleta (Jubenilak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 5

16,00: Elgoibar - Aloñamendi (Kadeteak)

17,30: Elgoibar - Aloñamendi (Jubenilak)

Īgandea 6

12,00: Elgoibar - Muskiz (Neskak)

FUTBITOA Urasandin Īgandea 6

10,00: D. Kalimotxo - G. Garcia King - Kong - Txirristaka

11,00: U. de Chile - Sporting Aldavas - Lucky Luke

12,00: Gorribeltz - Ametsa Lagun Toki - Bar Roke

EMAITZAK

ESKUBALOIA

Muskiz 14 - Elgoibar 12 (Neskak)

ARETO FUTBOLA

Elgoibar 4 - Ramon Vizcaino 2 (1. maila)

Elgoibar 2 - Casa Amalur 4 (2. maila)

FUTBOLA

Haundi 3 - Zalla 0

Elgoibar 2 - Eibartarrak 2 (2. erregionala)

Beasain 2 - Elgoibar 1 (Jubenilak)

Mutriku 0 - Elgoibar 2 (Kadeteak)

Tolosa 1 - Elgoibar 1 (Infantilak)

Aretxabaleta 1 - Elgoibar 0 (Neskak)

XAKEA

San Andres C 1 - Elgoibar A 3

Elgoibar B1 - Eibar C 3

1993ko KIROL



JUDO

Angel Mari Albizu, 24 urte

- Euskadiko selekzioko partaide.
- Burdeos-eko txapelketan 3.a.
- Euskadiko Sambo Txapelketa.
- Gipuzkoako Txapelketa.
- Euskadiko Txapelketa.
- Eibarko Nazioarteko XXII Torneoan 2.a.
- Lisboako Nazioarteko Torneoan txapelketa.
- Anglet (Frantzia)ko Torneoan 3.a.
- Sestuko IV Txapelketan 2.a.




PILOTA

botu 1

Juan Inazio Ansola, 25 urte


- Sigmako Torneoeko txapelketa.
- Deba arroko txapelketan semifinalista.
- Irun eta Usurbileko Txapelketan partehartzaile.
- Añorgako Torneoan final laurdenetara iritsi zen.



TXIRRINDULARITZA

Alexander Galarraga, 16 urte

- Kadete mailako Euskadiko txapelketa.
- Espainiako txapelketan 14.a.
- Zegamako txirrindulari proban 2.a.
- Segurako Txirrindulari proban 3.a.



TRIATHLOIA

Iñaki Konde, 42 urte

- Euskadiko triatloia C mailan burutu zuen. (3.800 igeri, 130 bizikletaz eta 30 korrika)
- Duatloian Euskadiko zirkuitoa hirugarrena bukatu zuen. (A mailan : 40-50 urte bitartean).



ESKUBALOIA

Alazne Rementeria, 27 urte

- 10. urtea Arrate Amaña ekipokoa jokatu.
- 1. dibisioan jokatu eta iguera fasea jokatu zuten Molins del Rey (Kalaluña) eta Eibarren.



ATLETISMOA

Karmen Perea, 18 urte

- Pista estalia: Brontzezko domina Espainiako Junior txapelketan.
- Krosa: 8.a Euskadiko txapelketan.
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapelketa absolutua.
- Markak: 800 m. 2.15.41
1.500 m. 4.48.73



EHIZA

Patxi Arriola, 29 urte

- Gipuzkoako Oilagorren txapelketan txapelketa.
- Espainiako oilagorren txapelketan laugarrena.



FUTBOLA

Joseba Etxeberria, 16 urte

- Euskadiko selekzioa (SUB-17):
Madrid 3 - Euskadi 3 (2 gol)
Euskadi 5 - La Rioja - 1 (2 gol)
- Espainiako selekzioa (SUB 16):
Suecia 1 - España 2 (gol 1)
España 5 - Israel 1 (gol 1)
- Errealeko jubeniletan jokalaria. (16 gol).

BARREN Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzaz 1993ko Elgoibarko kirolari onena aukeratzen ari da. Berau aukeratzeko izen hauek proposatu dizkigute Elgoibarko Kirol elkarteek. Zuek aukeratuko duzue onena eta bidali erantzuna **BARRENERA**.

Erantzuten duzuenon artean **ARTEGI** elektratresna dendak emandako

SONY VHS BIDEO EDER BAT zozketatuko dugu.

OLARI ONENA



ARETO FUTBOLA

Cesar Arriola, 29 urte

- 92-93 Futbol Areto txapelketan jokalaria onena aukeratu zuten beste ekipoetako entrenatzaileek partiduz partidu ematen dituzten puntuaketaren arabera.



IGERIKETA

Judith Ajobita, 13 urte

- Lehen postua Eibarren, 400m. krolean
- Lehen postua Azpeitin, 100m. krol eta estiloetan.
- Lehen postua Oñatin 200 m. krolean.
- Lehen postua Legazpin 100 m. krolean. 1993. urtean marka pertsonal guztiak hautsi ditu.



HERRI KIROLAK

Harrijasotzailea

Javier Arriola, 20 urte


- 21 urtetik beherakoetan Euskadiko eta Gipuzkoako txapelduna.
- Adin librean: Bigarren mailako txapelduna eta Euskadiko bigarrena.
- Elgoibarren 105 jasoaldiko marka 3 jasoaldigatik hobetzea lortu zuen.



KARATEA

Josu Duran, 10 urte

- Lehen postua Azkoitin jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Lehen postua bi aldiz Markinan jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Parte hartu duen txapelketa guztietan lehen postuan geratu da.



MENDIA

Pablo Barrenetxea, 25 urte

Aitor Esnaola, 24 urte.

- Nanga Parbat espedizioan parte hartu zuten 8.000 metrotik gorako mendia egin zuten lehen elgoibartarrak izan zirelarik.

ORAIN ARTEKO SAILKAPENA

1. Josu Duran (61 botu)
2. Anjel Mari Albizu (38 botu)
3. Pablo Barrenetxea eta Aitor Esnaola (35 botu)
4. Karmen Perea (29 botu)
5. Alesander Galarraga (23 botu)

ARTEGI



Erantzuten duzenon artean

SONY

VHS BIDEO BAT zozketatuko dugu.

ZEIN DA 93ko KIROLARI ONENA?.....

IZEN ABIZENAK.....

HELBIDEATel.....

AEK: euskara maitatu hitz eginez

AEK 1975.
urtean sortu zen
Euskal Herrian.

Elgoibarren, lehenago Elgoibarko Izarraren babespean funtzionatzen zuten gaueskolek. Urteen poderioz eta demokrazia indartzen zihoan heinean, Elgoibarko Izarraren besoetatik askatzen joan ziren iharduera ezberdinak, eta horien artean gaueskolak ere bai.

Gaueskolak ordura arte AEKrekin koordinatzen ziren Euskal Herrian. Hasera batean nahiko modu informalean ematen zituzten klaseak, astean behin edo birritan eta ordutegi finkorik gabe. Duela 12 urte, egunero klaseak ematen hasi ziren eta 1983. urtean Udalari munizipalizatzea eskatu zioten eta honen erantzuna oso ona izan zen haseran. Beranduago Euskadiko Ezkerrako zinegotziak Udalarekin bat eginda, beste proposamen bat luzatu zien: Udal Euskaltegia izatea eta HABErekin koordinatzea. Ordurarte klaseak ematen jardun zutenek zer egin ez zekitela geratu ziren, ordurarte beraiek AEKrekin koordinatzen baitziren. Barne eztabaidak eduki zituzten eta gehiengoak AEKren barruan segitzea erabaki zuen.

Harrez geroztik, gorabehera bat baino gehiago bizi izan ditu AEKk. Denboraldi batean nora ezean ibili zen lokala zela eta. Batzutan Kontserbatorioak lagatako geletan ematen zuten klasea, Gaztetxe gaineko lokalean, Muguruza ikastetxean ere... Gaur egun, orain dela zazpi urtetik, Udalak lagatako Plaza txikiko lokaletan daude.

Ikaslegoari dagokionez izugarritzko eragina izan du AEKrengan,



■ ■ AEK euskaltegi libreak Plaza txikiko 3an dauka egoitza.

duela urte batzuk Udalak hartutako erabaki batek. Langabetu, ikasle eta jubilatuei matrikularen erdia gaur egun, eta garai batean hiru laurden ordaintzen zien Udalak, baldin eta Udal Euskaltegira joaten baziren. Hori ikusita, AEKkoek herritar guztiei, AEKra ikastera joaten direnei ere bai, eskubide berbera emateko eskatu diote behin eta berriz

AEKk hizkuntzaren erabilera praktiko eta erreala bultzatu izan du beti.

Udalari. Barnetegietara joateko Udalak matrikularen %40a ordaintzen du barnetegi gehienak AEKrenak izanda ere. AEKk herritarrengan Udalak egiten duen diskriminazio salatzen du. Egoera honi aurre egiteko, AEKko langileek erraztasun ekonomikoak eskaini behar izan dituzte beraien soldataten kalterako bada ere. Zuloa estaltzeko, errifak saldu, taberna muntatu eta horrelako ekintzak burutu behar izaten dituzte. Udal ordenantzak onartzekotan dauden garai honetan,

egoera diskriminatzaile hau konpontzeko aukera daukala gogorarazi nahi dio AEKk Udalari.

AEKk hizkuntzaren erabilera bultzatu izan du beti metodologiari dagokionean. Beti egoerara moldatutako metodologia, erreala eta zuzena.

Urtean zehar, Euskal Herri mailan, AEKk Korrika, AEKnapada eta AEK eguna ospatzen ditu. Herri mailan, asteburuetakoa irteerak, bertso afariak eta sagardotegietan afariak antolatu izan dituzte. Klaseekin lotutako ekintzak, txangoak e.a. ere egin izan dituzte eta Diputazioak antolatzen duen kanpainaren barruan urtero ekartzen dute antzerki talde edo abeslariren bat. Euskaraz gain, AEK euskal kultura bultzatzen ahalegintzen da.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1983

Langileak: 4

Ikasleak: 92

Arduraduna:

Amaia Larrañaga

Iharduera:

Euskalduntze eta alfabetatzea.

Helbidea: Plaza txikia, 3.

Elkarte izateko beharrezkoa da errejistratua egotea

Askotan entzun izan da elkarte "legal" izateko legalizatu beharra dagoela. Gai honi buruz zertxobait jakitearren Udaleko Kultur teknikaria den Blanka Salegirengana jo dugu. Blankak legalizazioari buruz hitz egin digu eta oker ulertutako zenbait gauza argitu ere bai.



■ ■ Elkarte izateko, lehendabizi errejistratu egin behar.

Elkarte bat legalizatu beharra dagoela esan ohi dugu, baina Blanka Salegik esan digunez, gaizki esanda dago. "Elkarte guztiak, haseratik dira legezkoak, eta beraz, ez dute legezatu beharrik. Legalizatu egin behar direla esaten dugunean, errejistratu egin behar direla esan nahi dugu. Donostiako elkarten erroldan izena eman edo errejistratu, alegia. Gaizki esan hau argitu ondoren, edozein taldek, elkarte bezala funtzionatzen has-teko eta Udala, Jaurilaritza, Aldundia edo beste edozein erakunderen diru laguntza jasotzeko, errejistratu beharra duela azaldu du Blanka Salegik. Horrela ez balitz, administrazio mailako arazo ugarirekin egingo dute topo elkar-teek: "lehen arazoa CIF zenbakirik ez dutela da eta hori gabe ez dago diru laguntza jasotzerik".

Beraz, elkarten erroldan izena emateko Kultur Zerbitzura jo behar da eta bertan Blankak bete beharrezko estatutuen berri emango du. Behin hori bete eta gero, Donostiako erroldaren onespena jaso behar da.

Errejistratua dagoen elkarte batek diru laguntza jasotzeko, proiektu bat aurkeztu behar dio aurrekontu eta guzti Kultur Batzordeari. Hemen elkarteari laguntza eman ala ez erabakiko da.

Azken azldi honetan herrian hiru elkarte berri errejistratu dira. Bat, GARE Elgoibarko Irrati Zaletuen Elkarte izan da, beste bat, Andraize emakume taldea. Bi elkarte hauez gain, Gazte Asanblada ere erroldan izena ematekotan dabil eta aurrez, estatutuak kaleratu eta sinaturak biltzen dabil Udaltxean aurkezteko.

MOTZAK

ZOKOAN DVko maketen zerrendan

Elgoibarko Zokoan taldea Diario Vasco egunkariak ateratzen duen Devorame izeneko gehiagarriaren euskal maketen zerrendan, bederatzigarren postuan agertzen da aste honetan. Maketak 500 aletako tirada zeukan eta denak saldu zirenez, kopia gehiago egin behar izan zituzten euren kontura. Zokoan taldeak, Radio Euskadik antolatzen duen maketa lehiaketan laugarren postua lortu zuen eta La Polla Records taldearen telonero ere izan dira.

OHOkoko umeentzako egonaldiak Gaztelun

Udaleko Euskara Zerbitzuak martxoaren 31tik apirilaren 1era bitarteko egonaldia antolatu du Gaztelun OHOkoko hiru ikastetxeetako lehen, bigarren eta hirugarren mailako haur-erentzat. Bertan 30 haur-erentzako tokia bakarrik egongo da eta izena hilaren 14tik 18ra eman behar-ko da Kultur Etxeko euskara Zerbitzuan goizeko 9etatik 11ak arte edota 74 43 66 zenbakira deituta. Egonaldiaren prezioa 3.000 pezetakoa da.

PINTURAK

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guztietako lanak

San Roke 30 behea Tel. 74 36 52



Eskulanean saiatzen gara

Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

Gazte eroak lanean oparoak

Nork uste zuen "BARREN" gaztetuko zenik? Hemen gaude, beraz, eginkizun hau burutu asmoz elkartu garen gazte talde bat.

Atal honen helburu nagusia inguruko gazteen arazo ezberdinei buruzko ikuspuntuak jaso eta azaleratzea litzateke. Hau burutzeko burubelarri eta begiak irekita edukitzea besterik ez dugu behar.

Hogei lagun inguru elkartu gara, atal hau aurrera atera nahian. Ikus, ikus "BARREN"eko azken fitxajeak !!



Lan honetarako ertainetako hiru ikastetxeetako (Instituta, Mekanika eta IMH) ikasleak bildu gara talde haundi bat osatuz. Funtzionamendu egoki bat lortzeko multzo ezberdinak eratu ditugu. Astero talde batek hartuko du atal hau idaztearen ardura eta, hain zuzen ere, BBBko 3. mailako-

ak eman diogu hasiera.

Guzti hau argitu ondoren, suposa zenezakete hurrengo ataletan izango diren ikuspuntu ezberdinen zergaitia. Taldea herri, adin eta pentsakera ezberdineko pertsoenez osatua dago eta, beraz, enfoke anitzak aurkituko dituzue.

Eroen Aroa Hasi Da!!

GREZIARA BIDAIA

Arreiturre batxilergo Institutoko zazpi ikasle eta irakasle bat, Greziara joan ziren ihauterietan. Bertako aztarnategi eta museoak bisitatzeaz gain, Atenas hiriko zoko berriak ere ezagutu dituzte. Esperientzia polita izan dela adierazi digute.

ARTZE INSTITUTUAN

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitzegiten ez dutelako baizik"

Poema labur honen egile den Joxean Artze usurbildarraren olerkiez gozatzeko aukera izan zuten atzo, osteguna, BBBko 3. mailako ikasleek. LHiko aretoan eskaini zuen emanaldiak bi ordu inguru iraun zuen.

SEXUALITATE IKASTAROAK BATXILERGO INSTITUTUAN

Martxoak leen sexualitate ikastaro bat hasi zen institutuko lehenengo eta bigarren mailako ikasleentzat, hilaren 10a arte iraungo duena. Maila bakoitzean bi orduko hiru saio emango dira, bi ataletan banatuak: emanaldiak eta kontsultak. Emanaldiak klase osoaren aurrean egiten diren bitartean, kontsultak talde txikietan burutuko dira, klase berdeetako aurpegi gorriak ekiditeko.

Ortueta

ZAPATAK ETA POLTSAK

San Frantzisko 2 - ☎ 74 04 95 - ELGOIBAR



XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

imanole

GOZOTEGIA

San Frantzisko 44, 74 41 37

Etxebizitzak

BUHARDILA BAT ALOKATZEA nahi dut. Berdin zait Elgoibar, Mendaro ala Alzolan izan.
☎ 19 29 31

PISU BAT SALGAI dut San Frantzisko kalean 37- 4. pisua.
☎ 74 34 03 - 74 09 56

ETXE BAT EROSIko nuke DEBAn. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gauetz 19,30etatik aurrera.
☎ 74 04 59

ETXE BAT SALGAI daukat SANTA KLARA 24an.
☎ 74 40 52 (Ofizina orduetan)

BASERRI BAT HARTUko genuke
☎ 76 62 64 Imanol

PISU BAT SALGAI. UBITARTE 11. zenbakian.
☎ 74 12 07 Iñaki - Mertxe

ETXEBARRIN ETXEBIZITZA berri bat dago SALGAI. 87 m2. Sukaldea, 3 logela, egongela bat, 2 bainu gela, ganbara, terraza eta garajea.
☎ (943) 70 12 71

Lana

EDOZEIN TESTU moeta ORDENAGAILUZ pasatzen da. Grafikoak ezartzeko aukera. Deitzeko arduak: 14:00-16:00 eta 20:00-22:00
☎ 74 22 77 Iratxe

kontabilitate matematika, nominak eta seguritate soziala, administraritzako praktikak eta kosteetako kontabilitate **KLASEAK EMATEN** dira edozein mailatan. Esperientzia zabala..
☎ 74 21 65 Javi

Hiru neska gara eta astebukaeretan **UMEAK ZAINTZEKO PREST** gaude.
☎ 74 05 36/74 08 46 (Gauetz)

Salerosketak

ADI!! RENAULT 19 CHAMADE 16V. SS AK BAT SALTZEN dut. Prezio oso ona. **BIKAINA.** (Bazkal eta afal orduetan deitu)
☎ 74 23 64

ARTZAI TXAKURRAK SALGAI ditut. Bi hilabete dituzte.
☎ 74 33 76 (Ainhoa)

GARAJE BAT ALOKATZEN dut. Santa Ana 2an.
☎ 74 32 48 (Ana)

Trikitixa jotzeko **SOINU TXIKI BAT** daukat saltzeko.
☎ 74 11 29 (Ofizina orduetan)

GITARRA ELEKTRIKO BAT SALGAI. Fender Stratocaster imitazioa eta 50 watioko Peavey amplifikadorearekin. (Arratsaldez ofizina orduetan)
☎ 74 02 36

ARROPA SEKADORA - ZENTRIFUGADORA bat SALTZEN dut. Estrenatu gabe. 40.000 pta balio zuena 18.000 pta.
☎ 74 19 81 (Ana Mari)

San Antolin auzoan **LOKAL BAT ALOKATZEKO DAUKAT.** Taberna ondoan.
☎ 74 17 95

EKONOMIKA BAT SALTZEN dugu. Berria. Deitu lanordutan.
☎ 74 16 38 Ainhoa

Bestelakoak

Duela hilabete Aterpe inguruko telefono kabina inguruan **LO egiteko SAKU BAT AURKITU** nuen. Deitu gaueko 8-9etara
☎ 74 31 41

Karnabaletako asteartean **ERLOJU BAT GALDU** nuen.
☎ 74 19 34 Maider

Karitasek **LO EGITEKO ZAKU BAT BEHAR** du.
☎ 74 15 09 / 74 12 57

Karitasek 125 W.eko **FRIGORIFIKO BAT** dauka behar duenari **EMATEKO.**
☎ 74 15 09 / 74 12 57

Pasa den hilak 4ean, **URREZKO PULTSERA BAT GALDU** nuen, Plazatik, Eroskira eta handik Elizara egin nuen ibilbidean. Arratsaldeko 6,30eta 7ak bitartean izan zen. Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu.
☎ 74 15 24

OTSAILEAN

Hildakoak

- ▶ Nazario Armendia Begiristain (59 urte) Otsailak 1
- ▶ Antonio Ulazia Uranga (69 urte) Otsailak 2
- ▶ Maria Leona Amuategi Arizaga (71 urte) Otsailak 3
- ▶ Rufina Fernandez Vallejo (86 urte) Otsailak 3
- ▶ Felipe Gabilondo Iriondo (72 urte) Otsailak 8
- ▶ Gergoria Molina Blanco (78 urte) Otsailak 10
- ▶ Jose Maria Ibarluzea Beloki (62 urte) Otsailak 10
- ▶ Catalina Velasco Gil (80 urte) Otsailak 12
- ▶ Teodora Gurrutxaga Mugerza (87 urte) Otsailak 14
- ▶ Sabas Gorrotxategi Barinaga (84 urte) Otsailak 20

Ezkonduek

- Jose Angel Bereziartua Arrillaga eta Maria Pilar Pedrosa Zubiaurre (Otsailak 12)
- ▶ Angel Yecora Montero eta Margarita Arrizabalaga Zubiaurre (Otsailak 19)
- ▶ Enrike Antxustegi Igartua eta Esther Egaña Rementeria (Otsailak 19)
- ▶ Luciano Luna Nuñez eta Maria Jesus Azpiazu Iza (Otsailak 28)

Jaiotakoak

- ▶ Saray Rodriguez Sota (Otsailak 12)
- ▶ Mikel Chimeno Olmo (otsailak 15)



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanada
Baserriko ogia
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92



magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behe tel. 74 34 91

4 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Shirley Valentine"

Zuzendaria: B. Gilbert

Aktoreak: Pauline Collins, Tom Conti, Julia McKenzie.

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri zine kluba
eta Andraize Emakume Taldea.

5 LARUNBATA

**EMAKUMEEI BURUZKO LIBURU
ERAKUSKETA**

✓ San Frantzisko iturri parean. Eta
euririk balego Udaletxeko
arkupeetan.

Antolatzailea: Andraize emakume
taldea.

**10,30 HERRI ESKOLAKO
JAIALDI-ERAKUSKETA**

Arratsaldeko 6ak arte eskola
zabalik egongo da eta hainbat
ekintza burutuko dira.

**16,00 AEKren ALDEKO
MANIFESTAZIORAKO
AUTOBUSA**

✓ Sigmako zubian

Antolatzailea: AEK Euskaltegia

19,00 MANIFESTAZIOA

"Insumitsoen alde eta epaiketen
aurka"

✓ Maalan hasiko da

Antolatzailea: Elgoibarko Talde
Antimilitarista.

6 IGANDEA

**14,30 EMAKUMEEI BERTSO
BAZKARIA**

Betsolariak: Saioa Arando eta
Ainhua Agirreazaldegia.

✓ Kimetz elkarteak.

Antolatzailea: Andraize.

19,30-22,15 ZINEA

"Shirley Valentine"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoa

Antolatzailea: Ongarri zine kluba
eta Andraize Emakume Taldea.

7 ASTELEHENA

20,00 HITZALDIA

GAIA: "Emakumea euskal
prentsan"

Hizlaria: Nati Abril (E.H.U.ko
Kazetaritza fakultateko irakaslea)

✓ Zaharren biltokiko aretoan

Antolatzailea: Andraize .

22,15 ZINEA

"Shirley Valentine"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba
eta Andraize Emakume Taldea.

11 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Tango-La mate porque era mía"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoa

Antolatzailea: Ongarri zine kluba

Z I N E A

Sirley valentine

40taka urteko etxeandrea bat,
bakar bakarrik sentitzen da. Bi
semeak etxetik alde egin dute eta
senarrak puntualitatea baino ez
dio eskatzen jatorduetan. Lagun
batek Greziara bidaiara irabazten
du eta berarekin joatera
gonbidatzen du. Haseran
zalantzan dagoen arren, joatea
erabakitzen du. Behin Grezian,
zenbait gertakizunek bere
bizitzaren inguruan ausnarketa
egitera bultzatuko dute.

Z I N E A

Miserableak



Bergarako Musika Eskola
eta Bandaren eskutik

**EIBARREN
MARTXOAK 12
22,30etan
Ipurua kiroldegian**

SARRERAK

AURRETIK: 800 pta.

TAKILAN: 1.000 pta.

**SALMENTA
PUNTUAK**

• ELGOIBARREN:
ELGOIBARKO IZARRA

Kultur Elkarteak

• EIBARREN:

Herriko taberna

Batzokia

Deportibo taberna

Eta Kitto!-n

ANTOLATZAILEAK: ETA KITTO! Euskara Elkarteak • EIBARKO 17. ANTZERKI JARDUNALDIAK

COLEGIO EL PILAR -ELGOIBAR



*Duela 25 urte
eta gaur egun ere, hezkuntzan lanean.*



PILAR IKASTETXEA -ELGOIBAR



■ *Hezkuntza serio eta efikaza oinarri hauen gainean:*

- *Giza baloreak.*
- *Ikasleei egoera berriak gainditzeko beren estrategiak sortzen irakastea.*

■ *"Euskeraz Bizi"ren barruan: Ikasi eta erabili!*

■ *Ingelera 4 urtetatik nazioarteko adituen eskutik.*

■ *Asmoak betetzen efikazak izateko baliabideak:*

- *4.000 m² kirol eta jolas leku.*
- *Irakasle guztiak euskaldunak, % 10a ingeleradunak.*
- *Egun guztiko psikologo orientatzailea.*
- *Musika 6 urtetatik 14 ra arte.*

IKASTOLA

2 urtetik 16ra bitarteko Hezkuntz Proiektua